

## **Bi agintaldi, ia 8 urte**

*Lucía Martínez Odriozola*

Amaia Goikoetxea eta Arantza Lezamiz dira burura datorzkidan lehenengo izenak atzera begiratzen dudanean, 2006.urtean Asociación de Periodistas Vascos-Euskal Kazetarien Elkarteko Batzorderako, orduan horrela deitzen zen, aurkeztu gineneko arazoia neure buruari azaltzeko. Amaiak, zeini sekula ez diot hainbesteko gogoia eta gorputzez eta arimaz aritzea eskertuko, aparra astindu zuen Biltzarrerako hauteskundealdia heldu zitzaigunean. 'Erreleboa eman behar da' eta 'Gauza politak egin ditzakegu' argudio-nahasketa batekin konbentzitu ninduen.

Gure promozioa, Leioan guztiz hezitua izan zen lehenengoa, laurogeigarren hamarkadaren hasieran lizentziatu zen, baina nik urteak behar izan nituen elkarretaratzeko. Deliberatu nuenean, 2005eko ekainean, Elkarteko egoitzan María Salvadorrek, idazkari paregabea, José Manuel Alonsok, presidenteak, eta Charo Adeliñok, orduan 'Kazetariak' aldizkaria kudeatzen zuen, hartu ninduten.

–Elkarretaratzera nator.

–Ordua zen –erantzun zidan Alonsok hain ezaguna zaidan barre horrekin.

Hilabete gutxi batzuk geroago, 2006ko udaberrian, Elkarteko presidenteak Batzordea aldatzeko batzar baterako deialdia iragarri zuen eta Amaiak suspertu gintuen. Batzartzen hasi ginen eta Alonsok erraztasun guztiak eman zizkigun, behar genuen laguntzaz hornitu gintuen. Eta aholku asko ere. Niretzat daukat bere apustu pertsonala zela Arantza Lezamiz erreleboaren buru izatea, bera Eneko presidente izatea, baina biren arteko akordio batean, neuk hartu nuen.

Batzorderako kazetari-lauki oso orekatua osatu genuen; telebista, irrati, agentzia, prentsa, kabineteetako profesionalak; euskaldunak; emakumeak eta gizonak. Guztia oreka handikoa.

Eguna heldu zenean –zeinetarako Amaiak uztai-belarritako gorriak oparitu zizkidan-Ercillan elkartu ginen. Larunbata zen. José Manuelen agur-berbaldia lanbidearen aldarrikapentsua izan zen, bertako kide izatearen eta EKEren eraketan parte hartzearen hantusteaz jardun zen baita ere.

Jaso genuen ondarea elkarte egituratu bat izan zen, diruarekin, baina partehartze eskasarekin. ETAk su-etena iragarri zuen momentu justuan. Momentu bikaina izurik gabe Elkartearen buru izateko. Aurreko batzordea hor Egon zen, banda terroristaren jazarpenen aurrean firme, lanbidearen urterik txarretan. Bere kideetako baztuk euren etxeak, lagunak, Euskal Herria, uztea aukeratu zuten lanbidean jarraitu ahal izateko hemendik oso urrutira. Dozenaka kazetari jomugan zeuden, beste probintzietara emigratuak, eskoltarekin, kontrazaitzea, pakete leherkor bat jasotzeko beldurrez edo kotxearen azpian begiratu motoreta piztu baino lehen. Eta hor José Manuel egon zen, ez bakarrik Elkartearen buru baizik eta Euskal-profesionalak ordezkatzuz ere.

Elkartearen buru 8 urtez izan nintzen, ia. Tirabira askoko momentuak, gogorak, eta baita garratzak egon ziren: eraso terroristak, komunikabideetako egoitzetan bonbak. Eta jarraitu genuen, ikasi izan genuen bezala. Azkenean, krisiak, koiunturala zena uste genuina eta egiturazkoa izan zena: ehundaka komunikabide itxita, milaka kazetari kaleratuak edo gizarte demokratiko batentzat mingarria den eskastasuna sufrituz.

Lehenengo jarduketako bat Euskal Kazetariak saria sortzea eta Manu Leguinecheri ematea izan zen. Jarraian, A Coruñan burututako batzar batean, FAPE sarirako proposatu genuen, zeina aurretiaz komunikabideetako zuzendariei soilik eman izan zitzaizen. Behingoz, guretako bat, erreportari bat. Bi ekimen hauek Manurentzat komunikabideetara bueltatzea ekarri zuten, bere gaixotasunak hankak mugitzea eragotzi ondoren.

Portell familiarekin bat etorri, José Mariaren, ETAk erahildako lehen kazetaria, oroimena berreskuratu genuen eta bere izena jarri genion Adierazpen Askatasunaren sari bati: Bere lehenengo edizioan, 2008an, Elena Tregubova kazetari errusiarrari eman genion eta Britainia Handian babes-politiko eskatu behar izan genuen Kremlinen aldetik jasotako jazarpenak zirela eta. Aukera anitz aztertu arren, ez genuen inoiz Tregubovak bere burua seguru sentitzea lortu sari jasotzeko. Bi urte geroago, epaimahaiak Terry Goulden, 'Matar al periodista' idatzi zuen kazetari iparamerikarra, lana saritu zuen. Liburuan erahilak izango ziren baina lanean jarraitu zuten erreportariez hitz egiten du. Gould Bilbora oparitu genion makila jasotzera etorri zenean José María Portellen argazki bat bere bulegoan zuela kontatu zigun. Dardarazi gintuen.

Biziki alaiak izan ziren bi momentu egon ziren, zeintzuk edozein aurkakotasun konpentsatu zuten: dekanuei egindako omenaldia, kidee zaharrenei; eta Sara Estévez, Saritari, emandako saria.

Parte-hartze horiek agerikoak izan ziren eta oihartzun handia izan zute komunikabideetan. Hauen ondoren, beste isileko, disdira gutxiagoko baina beharrezkoak ziren zereginak garatu genituen. Egindako ekintza guztiei estatutu-prozedura aplikatu genien, Junta eta Batzarretako aktak egin genituen; gardentasunez kuedatu genuen dena. Eta, estatutuak FAPEko eskabideei derrigorrez moldatu beharra aprobetxatuz, izena ere aldatu egin genuen gazteleraz: Asociación Vasca de Periodistas.

Niretzako, hazkunde pertsonaleko epea izan zen. Elkarteko presidentetzak oso plurala den errealitate profesional batera hurbiltzea eta honen inguruan taldeka gogoeta egitea ahalbidetu ninduen. Eta Magis Iglesiasek eraturako FAPEko taldeko presidenteordea izatea, Federazioa eratu zenetik lehen aldiz emakumezko kazetari bat aukeratua izan zen. Beno, neu ere euskaldunaren lehen emakumezko presidentea izan nintzen. FAPEko Batzordeko kide izateak gure herrialdean éllarrekin bizi diren errealitate askoren ikuspegi zabala eman zidan.

Gerora Elkargoaren eraketa etorri zen, beste artikulua batean kontatu dudana ekintza gogoangarri antzeko bat. Beti sinistu dut karguen iraupena mugatzearen beharrean. Elkartera heldu nintzeneko batera 2015eko urtarrilaren 19an agortu zen. Barkamena eskatu nahi diet oso lagunduak sentitu ez zirenei eta esker hunkigarria eman nahi diet onbera izan zirenei.

*Lucía Martínez Odriozola  
Lehendakaria 2006-2014*